ARDURATU ZAITEZ ZURE KATUEZ



Zure etxean bizi denaz

eta kalean bizi direnez.

Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko 19/2019 Foru Legeak eta haren erregelamendu-garapenak (94/2022 Foru dekretua) ezarri dute

Nafarroan bizi den katu baten jabeak honako betebehar hauek dituela, besteak beste: >>>

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

Laguntzailea:

Colegio oficial de Veterinarios de Navarra

NAVARRA : NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

1 **Ongi identifikatua eduki behar du.**
Hau da:

- Mikrotxip baten bidez identifikatu behar du.
- Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan inskribatu behar du.
- Identifikazio Pasaporte bat izan behar du.

2 **Esterilizatu behar du, etxetik kanpo bere kasa ateratzen bada.**

3 **Amorruaren aurka txertatu behar du.**

4 **Urtero, albaitaritza-kontrola egin behar dio bere osasuna aztertzeko.**

5 **Lagun egiteko Animalien Identifikaziorako Erregistroan jasoak dauden animaliaren datuak eguneratuak izan behar ditu.** Hori dela eta, honakoa jakinarazi behar duzu:

- Egoitza beste autonomia-erkidego edo herrialde batera aldatu izana.
- Animaliaren jabe aldaketa.
- Baja, animalia hil delako.
- Animalia galdu izana.
- Jabearen datuen aldaketa, hala nola helbidea, posta elektronikoa, telefono zenbakia, etab.



>>>

Jarduketa horiek albaitari profesional batek egin behar ditu eta, jabea zaren aldetik, zure ardura da horiek oro egiten direla ziurtatzea.



Betebehar horiek betetzea funtsezkoa da:

- katuaren, beste animalien eta pertsonen osasuna babesteko.
- galtzen bada, huraxe berreskuratzeko.
- haren ongizatea eta edukitze arduratsua bermatzeko.
- kale katuen populazioa handitzen duten nahi gabeko umealdiak eragozteko.

Kalean bizi diren katuak (kale katuak esan ohi zaienak) zure ardura ere badira; horregatik, zure katua libreki kalera ateratzen bada, esterilizatu beharko duzu.

Horrela, libreki bizi diren katuen populazioa kontrolatzen laguntzen duzu; horiek ere lan egiteko animaliatzat jotzen dira eta Legeak babesturik daude, lagun egiteko beste edozein animalia bezala.

Betebehar horiek ez betetzea lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko 19/2019 Foru Legea urratzea da.